



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2008-04-04**

VIURTEA 1399.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

EIDER IJURKO ETA EKAITZ ARAMENDI EUSKAL PRESO OHIAK

«Borrokan segiko duen jende ugari uzten duzu espetxe barruan»

IBARRA 6 urte espetxean igaro ostean, martxoaren 22an utzi zituzten aske; ibartar ugarik ongietorria egin zien

GATAZKA «Bere horretan dago; beraiek oztopoak jartzen dituzte, baina herriak erantzun egiten du», diote 6



A. IMAZ

Nafar Jokoak txapelketan lehiatuko dira pilotariak ikasturte amaierara arte

LEITZALDEA Asteburu honetan hasiko da Nafarroa mailako txapelketa; bihar, 8 partida izango dira Leitzaan 7

Maiatzaren 1aren harira Apirila Gorria antolatu du Sanblaspeko Asanbladak

TOLOSA Gaur izango da lehendabiziko hitzaldia, Otsabi gazte lokalean, 18:00etatik aurrera 3

OIHANA LOPETEGI TOLOSALDEKO BILGUNE FEMINISTAKO KIDEA

«Ekimena emakumeen artean iritziak trukatzeko baliagarria izango da»

TOLOSALDEA Bilgune Feministak hilaren 12 eta 13an izango diren Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministetara joateko deia luzatu du 2

zeu
ileapaindegia

santa klara 8,
Tolosa

ileapaindegia berritua

har ezazu zure txanda
943 671 427

T Tolosako kirol jarduerak

Bihar

Futbola.

■ Tolosa CF eta Eibar Bren arteko partida, 16:30ean, Berazubini.

■ Kadeteen ohorezko mailan, Tolosa CF eta Realaren artekoa, 10:30ean, Usabal kiroldegiko futbol zelaietan.

■ Infantilen ohorezko mailan, Tolosa CF eta Aurrera Ondarroa, 12:15ean, Usabalgo futbol zelaietan.

■ 2. lurraldekoan, Amartz eta Union Txiki, 15:30ean, Usabalgo futbol zelaietan.

■ Emakumezkoetan, Tolosa CF eta Vasconia, 17:30ean, Usabalgo futbol zelaietan.

Saskibaloia.

■ Bi partida Usabalgo kantxa nagusian, 12:00etan hasita: kadete mailakoa, Take eta Hernaniren artean, eta Take Laskorain taldeko kadete neskek Aldapetaren aurka.

Esportak.

■ Tolosako kadeteak Katilu taldearen aurka, 16:00etan, Usabalgo kantxa nagusian.

■ Infantil mailakoan partida, Tolosa eta Txurruurruren artean, 12:00etan, Usabalgo beheko kantxa.

Arto futbol.

■ Eskola arteko partida, infantil mailako neska, 10:30ean, Usabalgo beheko kantxa.

■ Gipuzkoako ligakoko partida, Laskorain eta Ventanas taldeen artean, 16:00etan, Usabalgo beheko kantxa.

Mahai tenisa.

■ Usabalgo Gin gelan, 16:00etan.

Etzi

Futbola.

■ Kadeteen 1. go mailakoan arteko partida, Tolosa CF eta Aitzgorriren artean, 11:00etan, futbol zelaietan.

Astelehena

Pilota.

■ Beotibarren, Pascual eta Beginoren artekoa, 16:30ean.

E Elkarrizketa OIHANA LOPETEGI Tolosaldeko Bilgune Feministako kidea

«Emakumeen arteko iritzia elkartrukatzeko balioko du»

Tolosaldea » Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministak izango dira datorren asteburuan; Tolosaldeko Bilgune Feministak bertan parte hartzeko deia luzatu du.

IÑIGO TERRADILLOS

Datorren asteburuan, hilaren 12an eta 13an Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministak izango dira Portugaleten dagoen EHUKO Eskola Nautikoan. Jardunaldi hauen antolatzailetako bat da Euskal Herriko Bilgune Feminista, eta honen baitan dago Tolosaldeko Bilgune Feminista. Bertako kide den Oihana Lopetegik (Ibarra, 1979) azaldu du jardunaldi hauen helburu zehatzak, eta nola osatu duten.

Bi egunetan zehar banatuko dira jardunaldiak. Zer izango da bertan?

Bi egunetan zehar, hainbat hitzaldi eta tailer izango dira, 3 ardatz nagusitan banaturik: *Emakumeok herrian eta munduan*, *Emakumeok indarkeri sexistari aurre eginez* eta *Emakumeok, gure identitateak eta gure gorputz intimituak*. Elkarte desberdinekin ardatz hauen baitako hainbat hitzaldi emango dituzte, eta eztabaidarako, iritzia elkartrukatzeko aukera ere izango da.

Zer espero duzu jardunaldi hauetatik?

Gai interesgarrietatik asko ikastea. Orain arte jaso duguna baino harago joatea. Euskal Herriko emakume asko joango gara, adin desberdinetakoak, eta hauek ezagutzera, eta iritzia elkartrukatzeko bidea helburuetako bat da. Beraz, asko ikasteko eta baita ere



E.E.

ondo pasatzeko asmoa dut Portugaleten.

Nori zuzenduriko jardunaldiak dira?

Emakume guztiontzat dago zabalik, beraz, eskualdeko guztiak animatu nahi ditugu Bilgune Feministatik. Adin guztietako emakumeentzat oso interesgarria izango da.

Hurrengo asteburukoa laugarrena da. Aurrekoak nola izan dira?

Aurrekoek balio izan dute emakumeen artean esperientziak elkartrukatzeko. Egia da garai oso desberdinetan egin direla, izan ere, lehenengoa 1977an izan zen. Orduetik guzaki asko aldatu dira. Lehen zapalkuntza gordingoa

zen, eta etxeko lanetan, esaterako, azkoz emakume gehiago zeuden. Formalki guzaki aldatu egin dira, eta emakumea eskubide batzuen jabe egin da, baina askotan egoera makilatu baino ez da egin. Indarkeria sexistak hor jarraitzen du.

Eskualdean datorren astean izango diren jardunaldietara joatera animatzen direnek zer egin behar dute?

Tolosaldeko Bilgune Feministarekin jar daitezke harremanetan, 645 739182 edota 636 263544 telefono zenbakietan, eta guk azalduko diegu nola eman daitezkeen izena. Bestela, informaziorako ere, www.jardunaldifeministak.org webgunea erabili daitezke.

L Laburrak

Aparteko Osoko Bilkura datorren astelehenean

TOLOSA » Aparteko Osoko Bilkura egingo dute datorren astelehenean, hilaren 7an, 08:00etan udal-tertxeko batzar aretoan. Tolosako Udalak parte hartzen duen Udalen arteko elkartearen Kutzako ordezkari izango diren bi kontseilari orokor eta bere ordezkari izendatzea izango da bilkuren helburua.

51ko kintoen festa antolatu du hilaren 13an, Andoainen

TOLOSA » 51ko kintoen festa egingo dute Andoainen hilaren 13an. 12:30ean meza izango da Santa Cruz ermitan hildakoen alde eta 14:00etan, bazkaria Leitzaran jabetxean. Izena eman nahi duenak 943 593205 (jatexea) edota 943 654592 (Jose M. Tolosa) zenbakietara deitu beharko du.

Antxustegietareren komikiak, Kultur Etxean

TOLOSA » Galtzaundik antolatuta, Joseba Antxustegietareren *Galtzaundi* aldiakirako egin dituen komikiak ikusgai daude igandera arte Kultur Etxean. Gaur 17:00etatik 20:00etara izango da zabalik erakusketa, eta bihar eta etzi 10:00etatik 13:00etara.

Oñatira irteera antolatu du Harizpe jubilatutako elkarteak

TOLOSA » Harizpe jubilatuen elkarteak irteera antolatu du Arrikutz kobazuloetara, Oñatin, hilaren 8rako. Txartelak, bulegoan daude salgai.

Segurtasuna glaziarretan ikastaroa Oargiren eskutik

TOLOSA » Oargi mendi elkarteak segurtasuna glaziarretan ikastaroa antolatu du asteburu honetarako Gavarnien. Izen-ematea, elkartearen edo oargi@telefonica.net helbidetan.

H Hilberriak

JESUS MARI IRURZUN LARRAÑAGA

Mariaje gure lankidearen senarra eta Irene eta Iñigo ikasleen aita



LASKORAIN IKASTOLAKO kideen izenean



TOLOSA
2008ko
apirilaren 4a

JOSU ARRIETA AZPIAZU

(Arrieta Elektrogailuak)



Ur handiek ezin dute Maitasuna iraungi, ez eta ibaiek ito ere.



Azpeitiko osaba-izebak eta lehengusuek

Oharra: hileta elizkizuna, gaur, 19:30ean, izango da Azpeitiko Soresauko San Sebastian parrokiari.

AZPEITIA
2008ko
apirilaren 4a

MARITXU SISTIAGA MANZISIDOR



Amuma, hazi gintuzun, euskara, aberria eta ohiturak maitatzen irakatsi zenigun, Zure enborretik adar anitz sortu dira



Joseba eta Eli Belaustegi

PASAI DONIBANE
2008ko
apirilaren 4a

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala Tolosa (Bellatokia)



Ibarran egin zen Apirila Gorrian Alizia Sturtzek hitzaldia eskaini zuen. INIGO TERRADILLOS

Gaur izango da Apirila Gorriko lehen hitzaldia

Tolosa » Maiatzaren 1aren harira, Sanblaspeko Gazte Asanbladak antolatuta hitzaldiak izango dira ostiralero.

ERREDAKZIOA

Tolosako Sanblaspeko Gazte Asanbladako kideek, «maiatzaren 1a gerturatzeko ari dela ikusita» apiril honetarako hainbat hitzaldi antolatu dituzte. Izan ere, maiatzeko lehendabiziko egunak «garrantzia

» APIRILA GORRIA

Apirilak 4, gaur

■ **Errepresioaren aurka, askapen nazionalaren eta sozialismoaren aldeko borroka.** Boltxe eta Euskal Herria Sozialistakoek eskainiko dute.

Apirilak 11, ostirala

■ **Palestina.** Komite internazionalistak emango du, 18:00etan.

Apirilak 18, ostirala

■ **Venezuelako iraultza.** Euskal

Herria Sozialista aldizkariko kideen eskutik izango da.

Apirilak 25, ostirala

■ **Kuba (Kubako Alderdi Komunistako kidea).** Zehazteke dago nork eskainiko duen.

Maiatzak 1, osteguna

■ **Jaialdia.** Goizeko mobilizazioetan parte hartu eta arratsaldetik aurrera festa izango da Sanblaspeko Gazte Asanbladaren lokalean.

handia du» ezkerreko mugimenduetan.

Gazte Asanbladakoek antolatutako hitzaldien helburu nagusienetakoa bat da, «askapen nazionalaren eta sozialismoaren aldeko borroka duen ezinbestekotasuna azaltzea». Honez gain, beraientzat horren garrantzitsua den alde internazionalista jorratzea. Xede hauek bete ahal izateko, munduan ematen ari diren prozesu iraultzaileen inguruko hitzaldiak antolatu dituzte. Baita askapen nazionalen aldeko borrokan inguruko enak ere. Horien artean, adibide gisa aurreko dituzte, Palestina, Venezuelak eta Kubakoa.

Lehen hitzaldia gaur izango da

Hitzaldiak apirilko ostiral guztietan izango dira Otsabi gazte lokalean. Orduetegiari dagokionez, lehendabiziko biak arratsaldeko seietan izango dira. Ekitaldiei amaiera emateko berriz, maiatzaren 1ean festa izango da, arratsaldetik hasita.

Gaurkoa izango da lehendabiziko saioa. Apirila gorriko hitzaldiei hasiera emateko, *Errepresioaren aurka, askapen nazionalaren eta sozialismoaren aldeko borroka* izeneko mintzaldia izango da. Hau Boltxe eta Euskal Herria sozialista aldizkariko kideek emango dute. Jardunaldian errepresioaren inguruko gaiak jorratzeaz gain, askapen borroketan «sozialismoaren aldeko borroka egiteak duen garrantzia» azalduko dute. Hau da, «independenziaren eta sozialismoaren aldeko borroka txanpon berdineko bi aurpegiak direla».

Gaurko saioa ere Otsabi gazte lokalean izango da, 18:00etan. Honenbestez, antolatzaileek Tolosa nahiz inguruko herrietako «gazte eta hain gazte ez direne» hona joateko deia luzatzen diete.

Bizitzaren gazi-gozaok



» Kale-kantoitik

Joxemi Saizar

Opor egunetatik bueltan berriro eguneroko martxan murgilduta gaude. Atsedena eta une alaietatik lanera eta une tristetatara konturatu gabe pasatzen gara. Egun batzuetan pilotutako bizipoza berehala hasten dira husten eguneroko gertaerak. Pakete berean ditu bizitzak lana, mina, amorrura, atsedena, poza, zoritxarra, jaia, ustekabea, ospakizuna, tristora, kezka, zoria, beldurra... Eta baita heriotza ere. «Horrelakoa da bizitza, egin zazu behar duzuna» zioen Hertzainak taldeak. Aurrera jarraitu behar.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK bost urte bete ditu eta ospakizunetan murgilduta dago. Hori ere egin beharra dago. Urte hauetan zehar egindako hainbeste lanaren fruitu hortxe dago eta. Bihar bertan haur, gazte eta helduentzako nahiko ekitaldi izango dira eta datorren astean mahai-ingurua. Gombidatuta zaudete denok bertan parte hartzea.

Ez naiz futbolzale amorratu horietakoa, baina Tolosak eta Realak irabazten duten igandeetan zertxobait gusturago oheratzen naizen horietakoa naiz. Bi talde horietan entrenatzailea aldatu dute aste honetan. Amartzor baten ordez lizartzarra maila mantentzeko. Ikaztegiatar baten ordez tolosarra mailaz igotzeko. Ea gure sufrikarioa aritzeko balio duten.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Aresoko mendian artzain-txakurra galdu da. Aurkitu duenak deitu dezala mesedez ondorengo telefono zenbakira: 648 64 0712.

LANA

■ **Garbitzailea.** Emakume bat behar da astean bitan kafetegian bat garbitzeko. Interesatuek deitu 943 67 04 46ra.

SALGAI

■ **Autoa.** Peugeot 306 HDI 2.0 2002 urtekoa. 140.000 kilometro. Egoera onean. Deitu 675 70 28 15 telefono zenbakira.

Aste honetan GPS ikastaroan ikasitakoa bihar jarriko dute praktikan, Zarautzen

Alegia » kutzak antolatutako ikastaroan hamaika lagunek hartu dute parte; bihar egingo dute azken froga.

ERREDAKZIOA

Kutzak antolatuta, GPSaren inguruko ikastaroa egin dute Alegiako Kultur Etxean, eta bihar emango diote amaiera, ikasitakoa proban jarri. Honetarako, Zarautzera joango dira ikasleak, eskuetan GPS bat hartuta.

Karmel Leizaola, mendi federazioko irakaslearen gidaritzapean hamaika lagunek hartu dute parte ikastaroan. Adin desberdinetakoak izan baldin badira ere ikasleak, denak ere mendizaleak ziren. Aipatzekoa da hala ere, partaide guz-

tiak mutilak zirela, neskekez zuten izena eman.

GPS mota ezberdinak daude, batzuk mendian ibiltzeko dira, beste batzuk berriz basoan. Itsasoa eta errepidean gidatzeko balio dutenak ere badaude. Baina Alegiako ikastaroan erabili dutena mendikoa da.

Ikastaroko azken froga

Astean zehar egin dituzten saio gehienak Kultur Etxe barruangaizatu dituzte. Bertan, GPSaren oinarriko funtzionamendua eta erabiltzeko modua erakutsi dizkiete. Astezkenean, lehendabiziko aldiz kalera atera ziren praktikak egiteko. GPSak koordinadak ematen ditu, eta honetarako beharrezkoa du hiruzatiarekin kontaktuan egotea.

Saioei amaiera emateko, bihar



Kultur Etxean egin dituzte ikastaroko saio gehienak. NEREA URBIZU

Zarautzera joango dira. Han, bakoitzak GPS bat hartuko du eta binaka jarriko dira. Bikote bakoitzak puntu batean kokatu da, eta GPSaren laguntzarekin Pagoetara iritsi beharko dute.

Denera, hamaika ibilbide ezberdin daude, eta bikote bakoitzak bat egingo du. Pagoetara iristean, GPSak elkar trukatu dituzte eta beste bide batetik itzuli beharko dute abiapuntura.

'Omenduz' ekitaldia antolatu du Udalak

Irura » Laskibar eta Jauregi-Berri baserriko ordezkariak, Aitor Mendiluze eta Lore Amenabar omenduko ditu.

ERREDAKZIOA

Irurako Udalak *Omenduz* ekitaldia antolatu du, aurreko urtean nabarmendu diren zenbait irurarrei omenaldia egiteko asmoz. Hala, Laskibar eta Jauregi-Berri baserrietako ordezkariak (Tolosako lekale lehiaketako bigarren eta lehen sailkatuak), Aitor Mendiluze bertolaria (Gipuzkoako Bertsolaritza Txapelketako irabazlea) eta

Lore Amenabar soinu-jolea (28. Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketan infantil mailako 2. sailkatua) izango dira omenaldia jasoko dutenak.

Ekitaldia hilaren 12an izango da, larunbata, eta 12:30ean hasiko da plazan. Harrera omenaldiaren ondoren, bazkaria egingo dute. Ondoren bertso saioa Jokin Sorozabal eta Unai Agirrekin. Bukatzeke, erromeria Unsain Anaiak Taldearekin. Bazkarian parte hartu nahi duenarentzat bazkarirako txartelak salgai daude Zaharren Biltokian, udaletxean eta liburategian, 20 eurotan helduentzat eta 10 eurotan 12urte artekoentzat. Txartelak lortzeko azkeneko eguna hilaren 9a izango da.



Irazusta eta Moreno, irabazle

VILLABONA » Irintzi elkarteak antolatutako mus txapelketaren irabazleak Fernando Irazusta eta Orenio Moreno izan dira. Txapelketan sailkatu diren lehen bost bikoteak Aiztondoko Elkartean Arteko Mus Txapelketan lehiatu dira. HITZA

Etxebizitza tasatuen ordenantza onartu dute

Villabona » Azken osoko bilkuran ere Udalbatzak La Salvadorako babes ofizialeko etxebizitza baldintzak onartu zituen.

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalbatzak egin duen azkeneko osoko bilkuran etxebizitza tasatuen ordenantza eta La Salvadorako babes ofizialeko etxebizitza zozketarako baldintzak onartu zituen aho batez.

Etxebizitza tasatuen ordenantza irabazleak, zozketetan parte hartu nahi duenak, azken bost urteetan errolatuta egon beharko du herrian edo gutxienez 15 urte-

tan herrian bizi izan dela frogatu eta egun errolatuta egon beharko du. Bestalde, ezingo du etxebizitza izan jabegoan. Horrez gain, gehienez babes ofizialeko etxebizitza eskatzen den gehienezko diru-sarrerak 1,5 biderkatuz ateratzen den kopurua ezingo du gainditu. Etxebizitza tasatuen hurrengo zozketak Flemingekoak (10 etxebizitza) eta La Salvadorakoak (27 etxebizitza) izango dira.

La Salvadorako babes ofizialeko etxebizitza zozketan parte hartzeko baldintzei dagokionez, 2003ko maiatzaren 15etik edo lehenagotik gaur egunera arte, etenik gabe, herrian errolatuta egon beharko du interesatuak edo gutxienez hamabost urtez errolatuta egon izana

eta gaur egun herrian errolatuta egotea. Etxebizitza izen emanda egon beharko du ere eskatzaileak.

Arrasateko atentatuari buruzko mozioak

Osoko bilkura horretan ETAK Arrasaten egindako atentatuaren inguruko bi mozio bozkatu ziren. EAE-ANVk aurkeztutako onartu egin zen, aldeko sei boto (guztiak EA Erenak) eta kontrako bost botorekin (EAJren 4 eta EBren 1). EAJk aurkeztutako ez zen onartu, aldeko bost boto (EAJren 4 eta EBren 1) eta kontrako 6 botorekin (guztiak EA Erenak). PSE-EEko zinegotzia bozkaketak egin ondoren iritsi zen osoko bilkurara eta beraz ezin izan zuen parte hartu.

Sahatsaren 'Nafarroa: lilura eta bizipoza' emanaldia gaur, Gurean

ERREDAKZIOA

Azkoitia eta Azpeitia Sahatsa dantza taldeak *Nafarroa: lilura eta bizipoza* emanaldia egingo du gaur Villabonako Gurea aretoan, 22:30ean. Sarrerak aurretik salgai daude herriko okindegietan 5 eurorengatik. Leihatilan 7 eurotan salduko dira.

Emanaldi honetan dantza, musika, abestia eta antzerkia uztartuko dira eta bi alde izango ditu: bata, iluna, mistikoa, ezohikoa; bestea, argia, poztasunezkoa eta festa girokoa. Juan Luis Lizabe Sahatsa taldeko zuzendariak azaldu duenez, «gogoia genuen Nafarroari

emanaldi bat eskaintzeko. Bertako dantzak egin ditugu, baina zerbait berezia egin nahi genuen, hainbesteoa baita herrialde horrek eskaintzen duen aniztasuna».

Horrela, hiru urtez aritu dira Sahatsakoak hainbat ohitura, tradizio eta dantza ikusten eta biltzen. Bertan ikusi eta entzun ahalako dira: Larrain dantzik eta Isabako ttun ttunetik ateratako ingurutxo nafarrak; Orreagan, Iruberrin eta Uxuen egiten diren penitentzigitaren erromesaldiak; Unanu, Altsasu, Lantz eta Lesakako Inauterietako pertsonai makurrak; Nafarroari abestutako doinu politik...



Emanaldiaren kartela. HITZA

Larramendirekin Bizkaiara bidaiatu

ERREDAKZIOA

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak *Bizkaiara Jauregiaren mugetan* lelopean prestatutako irteera

monografikorako izen emateko epea zabalik da dagoeneko, hilaren 7a arte. Irteera hilaren 12an izango da. Txango monografikoe-

tan 18 urtetik gorako euskaldunek har dezakete parte eta eguerdiko bazkariari dagokionez bi aukera daude: norberak bere bazkaria eramatea eta bere kontura bazkalteza, edota antolatzaileek hautaturiko ostaturen batean egitea otordua.

09:00etan aterako dira Villabonako Olaederra Kiroldetegi aurretik. Goizean bisitatuko dituztenak: Avellanadako Batzar Etxea, Enkarterrietako Museoa eta Boinas La Encartada' lantegi-museoa. Arratsaldean Balmasedako herriaren bisita gidatua, bertako monumentu-multzo garrantzitsua ezagutzeko. Informazio gehiagorako 943 69 64 50 zenbakira deitu edo txangoak@topagunea.com helbidera idatzi daiteke.

BERRIAK kazetari bat behar du Andoingo egoitzarako (erref. 08403)

Eskaizten da:

- Urtebeteko kontratua (luza daiteke)
- Etorikizuneko proiektu batean parte hartzeko aukera

Eskaizten da:

- Kazetaritza ikasketak izatea

Kontuan hartuko da:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea
- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Autoa izatea
- Hizkuntzak jakitea

Bidali zure curriculuma gb@berria.info helbide elektronikora, erreferentzia zehaztuz.

hitza k 5 urte

h h JAIALDIA h h
Apirilak 5 • Larunbata

hitza
TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

17:00:
Tolosako Beotibarren
Xurdien
kontzertua.
Sarrerak: Tolosako HITZ Aren
bulegoan salgai,
harpidedunentzat **3 euro**,
besteentzat **5 euro**.



18:00: Mus Txapelketa azkarra

Tolosako Oargi Elkarteak. Irabazleentzat bazkaria edo afaria Tolosako Isastegi sagardotegian.
Parte hartzeko, 17:30ean Oargin bertan izena eman beharko da eta bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu.

21:00:

Bertso afaria
Tolosako Oargi Elkarteak,
Amaia Agirre, Jesus Mari Irazu
eta Diego Riaño bertsolariekin.

Txartelak salgai Zizurkilgo Aurrean, Tolosako Raku eta Denak eta Leitzako Torrea tabernetan. Harpidedunentzat 20 euro, besteentzat 25 euro.

Afalostean poteo herrikoia, trikitixaz lagundurik.

Pilotarientzako eskuetako takoei buruzko tailerra antolatu dute

Alegia » Alegiko San Juan eskolak eta Intxurre pilota eskolak antolatu dute asteazkenean bi orduko ikastaroa, Kultur Etxean.

ERREDAKZIOA

Tailer teoriko-praktikoa antolatu dute hilaren 9rako oiltarako eskuetako babesak erabiltzen ikasteko, «ikusirik pilotan aritzeko zein garrantzitsua den eskuetan babesak (takoak) egoki jartzea eta eskuak ondo ezagutzea». Intxurre Pilota Eskolak eta Alegiko eskolako guraso elkarteak antolatu du tailer teoriko-praktiko hau: bai guraso, ume, pilotari edo nahi duen edonorentzat zuzenduta dago.

Honako gaiak landuko dira, bi ataletan banatuta. Arlo teorikoan, erabili daitekeen materiala, kon-



Pilotariek garrantzi handia ematen diote takoei, ondo jarri behar dira. ESTI EZEIZA

tuan izan beharrekoak, odol zirkulazioa eta babesak nola jarri. Arlo praktikokoan, berriz, takoak prestatuko dituzte, minik gabeko eskuan eta mina dagoen eskuan babesak jarriko dituzte, eta bukatzeko, takoak gordetzeko era gomendagarriena emango dute ezagutzera.

Ikastaroa Kultur Etxean izango da 17:00etatik 19:00etara, Igor Gutierrez pilot federazioko teknikariarekin. Intxurre pilota eskolako kidea den Joxe Mari Zabalak adierazi bezala. Aholkuak emango ditu beste askoren artean, bertaraten diren guztiak.

» DATUAK

- **Ikastaroa.** Eskuak pilotan aritzeko jarri beharreko babesak (takoak).
- **Eguna.** Asteazkena, hilak 9.
- **Lekua.** Kultur Etxea.
- **Ordua.** 17:00etatik 19:00etara.
- **Prezioa.** Doan.
- **Nori zuzendua.** Interesa duen guztiari.
- **Antolatzailea.** Alegiko eskola eta Intxurre pilota eskola.
- **Izen-ematea.** Bertara egunean bertan azaldu behar da.

Izena ez da eman beharrik

Alegiko Kultur Etxean hilaren 9an, asteazkena, azaldu behar du tailer honetan parte hartu nahi duenak. Beraz, ez da aurretik izenik eman behar. «Gonbitea luza-tzen diogu pilotari lotutako eta pilotazalea den edozeini».

Laburrak

Astigarragarako autobusa 10:30ean izango da

BEDAIO » Bihar Bedaioko Artubi elkarteak antolatutako sagarrondo-entxertaketa ikastaroan izena eman duten 42 lagunek, autobusa 10:30ean izango dute Bedaion. Alegian egingo duen geldialdia Kikara tabernaren parean izango da, 10:45a aldera. Ikastaroa ordubetekoa izango da 12:00etan. Afaltzeko berriz etxean izango dira.

Oinak ongi zaintzearen beharraz, astelehenean

IKAZTEGIETA » Astelehenean 17:00etan, Kutxako Gizarte Ekin-tzak antolatutako honako hitzaldi hau izango da Ikaztegieta Udal Liburutegian: *Oinak zaintzea ongi-zate osoa lortzeko. Pentsa dezagun hankekin.* Adineko pertsonen dago zuzenduta, eta gai hauek jorratuko dituzte, besteen artean: oinaren hezur-egitura, patologiarik ohiko-enak, oinen oinarriko zainketa, edota prebentzioa.

Intxurre futbol eta areto futbol taldeen emaitzak

Alegia » Orokorrean, «berdin mantentzea zen helburua»: lurraldekakoek zaila daukate baina asko kopan «oso ondo» ari dira.

NEREA URBIZU

Intxurreko futbol eta areto futbol taldeek, orokorrean ligaren hasieran heldutako helburuei eustea lortu dute. Dena dela, hobekien erantzun dutenak senior mailako areto futbol taldeko neskek izan dira, ligan 3. postuan baitaude, eta «dena ondo joanez gero, horrela bukatuko dute, bigarren postua eskuratzeko aukera askorekin», Intxurreko delegatua den Patxi Renobalesek argitu bezala.

Lurraldekakoak azken postuan

Aurten paperik gogorrera lurraldekako mutilek zuten: lurraldekako Lehen Mailara igotzea lortu zuten joan den urtean, eta lehendik ere maila hau ezagutzen bazuten ere, «gogorra egiten ari zaie, baina ondo entrenatzen jarraitzen dute eta moralez oso ondo daude». Gainera, partidak «juxtu galtzen dituzte». Gogoratu behar da gorago dagoen mailatik jaitsitakoak ere badirela, eta «oso fisiko ona dute hauek». Saillapeneko azken postuan daude mementoz.

Argi zuten sufririko zutela, baina, Renobalesek adierazi bezala, «ezin genuen igotzeko aukera hau galdu: igo egin ginen eta ez genuen errenuntziatu nahi. Mementoa aprobetxatu beharra zen». Datorren norgehiagoka azkenaurreko



Mutiko infantilek denboraldi oso ona egiten ari dira. PATXI RENOBALÉS



Lurraldekakoak azken postuan daude, oso talde onen kontra. P.R.



Infantil mailako neskek, Esther Videra entrenatzailearekin. P.R.

postuan dagoen Martuteneren aurka izango dute Alegian bertan, bihar 16:00etan. Orain, 6 partida gelditzen zaizkie. Santos Irazustabarrena da entrenatzailea.

Senior mailako neskek «ondo»

Areto futboleko dabilzan senior mailako neskek 3. postuan daude 40 punturekin. Bigarren geratzeko aukerak badituzte oraindik, Ordizia taldea bigarren baitago 50

Paperik gogorrera aurten lurraldekakoek dute, Lehen Maila mantentzea kostako zaielako

Mutiko infantilak urte oso ona egiten ari dira, txapelketa pare bat irabazi baitituzte

punturekin. «Hala ere, zaila dago, Ordiziak oso talde ona baitaude». Arazoak izan dituzte taldea osatzerakoan, haurdun dagoen bat dagoelako, eta bi neska lesioekin ibili direlako. Askotan 6 neskaekin ibili izan dira bakarrik eta hala ere, 3. daude.

Aurten hiru neska berri daude taldean, Gema, Itsaso eta Alegiko bat: Maite Azpeitia, alegia, eta «Lehen futboleko aritutakoa da». Asier Etxaniz eta Patxi Renobales daude taldea entrenatzen. Beraz, neskek mailari eutsiko diote. Lau partida geratzen dira bukatzeko, eta datorrena gaur daukate Alegian 21:00etan Orixe Tolosaren aurka.

Jubenilak eta kadeteak Kopan

Aurten jubenilak eta kadeteak Kopan ari dira eta «oso emaitza onekin». Hauek ere talde berri xamarrik daukate, «jende berri asko sartu baita, eta gazte asko dago, baina erantzuna oso ona izan da, eta kopan jubenilak bigarren, eta kadeteak hirugarren daude».

Eneko Garmendia eta Urko Urtaza dira kadeteekin dabilzanak astero-astero. Jubenilekin, berriz, Joxean eta Dabid. Kadeteek bihar izango dute norgehiagoka Lazkaron, arratsaldean.

Infantilak goiko postuetan

Infantil mailako mutilek lehenengo fasea jokatu dute eta 2. geratu dira. Orain, ohorezko mailako txapeladunen fasearen baitan daude. Partida bakarra galdu dute, bigarren doazenen kontra, hain zuzen. Hiru partida falta zaizkie, eta orduan finala jokatuko dute. Xabat Renobalesek entrenatzen ditu.

Gogoratu behar da, mutiko infantilak urte oso ona egiten ari direla. Izan ere, Idiazabal torneoak hirugarren urtez irabazi dute alebikinekin taldea osatuz, eta Shanti torneoak ere bai, bigarren urtez.

Infantil mailako neskek areto futboleko ari dira eta hauek ere «ondo» dabilta. Hirugarren lekuan daude saillapenekoan, bigarren gelditzeko aukera handiek. Esther Videraren taldeari 4 norgehiagoka falta zaizkio liga bukatzeko.

Oraindik ere dute zehaztu Intxurre kirol elkarteak noiz antolatuko duen Gargardo Festa, baina udaberrian izango da ziurrekin.

E **Elkarrizketa****EKAITZ ARAMENDI ETA EIDER IJURKO** Euskal preso ohiak

Ibarra » Espetxea atzean utzi arren, «sentimendu gazi-gozaok» eta «zama banandu beharra» aipatu dute Eider Ijurkok eta Ekaitz Aramendik.

ASIER IMAZ

Martxoaren 22an utzi zituzten aske Eider Ijurko (Ibarra, 1981) eta Ekaitz Aramendi (Ibarra, 1979) 6 urte espetxean pasa ondoren. Egun berean egin zitzaizen ongietorria Ibarra, «nahiz eta Ertzaintza prest izan ekitaldiak ez burutzeko oztopoak jartzeko».

Espetxetik atera, etxera etorri eta ongietorria airean?

Eider Ijurko: Azken aldian debeku ugari izan dira ongietorrien inguruan. Jipoiak ere egon dira Santutxun (Bizkaia) bezala eta Elgoibarren (Gipuzkoa) ere oztopoak jarri zituzten. Herrira iritsi ginenean; berriz Euskal Herrira, berriz gatazkara, hemen zeuden gure zain. Jende pilo batek ongietorria presatzen lan txukuna egin zuela bagenekien, baina orokorrean, oztopoak jarri arren herriak erantzun egin zutenaren sentsazioarekin geratu gara. Beraien aurrean jendeak erantzun egin zuen, lasai mantendu zen. Hau egin egingo dela esan zuen herriak, zuen gainetik eta oztopo guztien gainetik. Gatazka bere horretan dago: beraiek oztopoak jartzen dituzte baina herriak erantzun egiten du. Gauzik garrantzitsua hori izan zela uste dut larunbatean

Ekaitz Aramendi: Eiderrek esan duenarekin erabat ados nago. Herriak eta herritarren gogoak aurre egin zien biolentzia eta oztopoak jartzen dituen horri guztiari, ilegaltzazioari. Jende askok parte hartu zuen eta jende horren guztiaren gogoak irabazi zuen debeku guztien gainetik.

Herria aldaturik somatu al du zue?

E.A.: Etxe bat edo beste berria badago baina ingurunea berdintsu ikusten ari gara. Kaleak berriz ikusten gabilta paseoa eta autoekin pixka bat harriritu gaudu. Zirkulazioa izugarria da eta gero eta aparkaleku gehiago egon arren dena bete egoten da: non utzi behar dugu autoa? galdezka ibiltzen gara autoarekin. Horretaz gain TAOa da dena, dena ordaindu behar duzu. Nik uste kasu honetan hori dela larriena, negozioa egiten ari direla; hauek izan ere, alde batek edo beste hiri egin beharra daukate.

E.I.: Jendearengan ikusi dut nik al daketa handiena. Sei urte ez dira alperrik pasa eta jendea pila bat aldatu da: bizitzeko era, aisialdia nola pasatzen duten, gazte jendeak elkartzeko duen era... asko alda-



ASIER IMAZ

«Barruan borrokan segiko duen jende pila uzten duzu; benetako altxorra dena»

tu da hori eta orain pixka bat kokatu nahian gabilta.

E.A.: Ibarra plaza adibidez lehen hutsa zegoen, sei urtetan izu garrizko ume pila agertu dira eta orain beteta dago. Hori guk ez dugu ezagutu. Gaztetxean ere belaunaldi berriak daude. Gu gaztetxetik espetxeratu gintuzten eta gaztetxera itzuli ginen ongietorria bertan egin zelako. Belaunaldi berri horiek ez ditugu ezagutzen eta gure belaunaldikoek ohitura asko ezberdinak dira. Oraindik denbora behar dugu jendearekin egoteko eta al daketa horietara egokitzeke.

Sei urte espetxean eta gainera etxetik urrun.

E.I.: Nire ustez euskal preso politikoa zaren Euskal Herriko kanpo egongo zarela ia ziurtaturik duzu, ikusi besterik ez dago gaur egun dispersioaren datuak zeintzuk diren. Nire ustez dispersio politikoa Kolektiboa banatzeko edo desagertarazteko neurri bezala sortu zutela. Fruiturik ez zuela ematen ikusi zutenean, senideen aurka erabili dute. Horrela, benetako zigorra dutenak gure senideak eta lagunak dira; bidaia, errepideak, istripua izateko izugarriko arriskua... hala eta guztiz ere asteburuero preso guztiak bisitak daukate. Hori izugarriko garai-pena da politika horren aurka.

E.A.: Dispersioa gerrako instrumentu bat da eta instrumentu horien bidez heriotz zigorraren bidean jartzen dituzte gure senide eta lagunak. Espetxe barruan ezer ezin

dezakeguz egin, guri osasuna jatu digu. Kezaturik zaude, batez ere neguan edo eguraldi txarra ikusten duzunean; jende pila bat errepidean dator, moldatuko dira, zerbitu gertatuko da, ez... pentsatzen duzu eta horrek osasunajaten dizu.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak zer suposatzen du euskal preso batentzat?

E.I.: Nire ustez militantziaren barruan borrokan jarraitzeko beste gune bat da Kolektiboa, espetxea borrokaren beste fase batean bihurtzen baita. Hasiera batean, espetxera sartzen zaren, Kolektiboa babesa, maitasuna, elkartasuna eta dena da. Azkenean familia txiki batean bihurtzen da. Baina lehen esan bezala, borroka da, duintasuna, kostantzia, militantzia... Niretzat Kolektiboaren parte izatea benetako harrotasuna da.

E.A.: Nire ustez Kolektiboa beste agente politikoa bat gehiago da, preso politikoen sortu dutena. Eiderrek esan duen bezala, Kolektiboa borroka da; espetxe barneko gure eta kolektiboaren bizi baldintzen inguruko borroka, eskubide zibil eta politikoen inguruko borroka, nahiz eta legea etsaiarena izan. Preso politikoa bati izugarri aporteratzen dio espetxe barruan, famili bat da. Kanpora begira Euskal Herriarekiko bere atxikimendua ematen jarraitzen du. Hau da, injustiziaren aurrean edo eskubideen urraketen aurrean sarri kaleratzen ditugu. Aldi berean, herriaren-

tzat bere aporterazioa egiten du beste agente politikoa, sozial eta sindikalekin.

Espetxetik irtetean poza eta tritura elkartzeko omen dira.

E.I.: Sentsazio gazi-goza da barruan gelditze den jende hori guztia han uztea. Noski ilusioa egiten dizula ateratzeko, baina nola ateratzen zara. Azkenean beraiek jartzen dizute zigor bat, beraiek sartzen zaituzte barrura eta beraiek kaleratzen zaituzte suduraren puntan jartzen zaienean. Esan bezala, barruan borrokan jarraituko duen jende pila bat uzten duzu, egunero-egunero eta goizetik gauera borrokan jarraituko dutenak, benetako altxorra dena uzten duzu han. Sentsazio hori duzu eta esaten duzu: zotz, jende guzti hau barruan uzten dugu eta ez dugu ezer konpondu. Gu kalera goaz baina hemen ez da ezer aldatu, gatazkak bere horretan jarraitzen du. Kolektiboaren egoera geroz eta okerragoa da, errepresioa geroz eta handiagoa da espetxeetan; orain ireki dute Puerto III eta izugarriko esperimentuak egiten ari dira kideekin: izugarriko zigorrak, bizi baldintza oso-oso kaxkarrak... ezin duzu benetako poztasun hori eduki, ezin da. Izugarriko kontraesanak daude.

E.A.: Kolektiboaren familia horretatik zu zeu pertsonalki kaleratzen zaituzte, kondena osoa betetarik. Pertsonalki pozik zaude baina familia horren zati handi bat, zama bat, zurekin ateratzen duzu sentimentuan, maitasunean, borrokan,

» DI-DA BATEAN EIDER IJURKO

- **Inkomunikazioa?** Betirako barruan gelditzen zaizkizun bost egun beltzak.
- **Isolamendua?** Pertsona txikitze-toki bereziarena.
- **Funtzionarioak?** Espetxe barruko etsaiak.
- **Rekuentoa?** Oraindik burutik kendu ezin den zerbitu.
- **Lana?** Asko.
- **Bisa bisak?** Arnasa.
- **Gutunak?** Harremana mantentzeko bidea.
- **Telebista?** Kaxa tontoa.
- **Kartzela?** Borrokarako beste gune bat.
- **Sexua?** Faltan botatzen dena.
- **Drogak?** Asko espetxean.

EKAITZ ARAMENDI ONGIETORRIAN KANTATUTAKO BERTSOA

«Bertsoz nahi izan dut esan/ sari entzun duguna hitzez/ askotan esan nagatik/ betetze al du ekintzez/ eguneroko lanari/ paso iten diogu errez/ nitaz pentsatzen baitugu/gutaz pentsatzeran ordez/ izan diren omenez/ haien oinorde garen/ euskaldunon historia/ bete daukagu gerrez/ herrien askatasuna/ ez dute ematen berez/ borrokaz geroa gurea da/ borroka gabe ezerez».

militantzian... Zama hori herriaren eta jendearengan banandu beharra dago, guztion artean desagertarazi beharreko gauza bat baita.

E.I.: Gogoratzen naiz azken egunean, gure artean hitz egiten kide batek nola esan zidan: «zure zati bat gurekin geratuko da». Baina buruan gure zati bat zuekin kalera dihoala kaleratzen zaituzte suduraren puntan jartzen zaienean.

Espetxeak bergizarteratzeko sortu omen dituzte. Bergizarteratu al zarete?

[Algarak].

E.I.: Beraiek nahi duten bezala ziurrenik ez. Beraiek erabiltzen duten hizkuntza nahastua da hori. Espetxeetan dagoen bakarra zigorra da; errepresioa. Azkenean borrokarako argumentu gehiago besterik ez dituzte ematen.

E.A.: Bergizarteratzearena gezur handi bat da. Orokorrean gainera, ez gurekiko bakarrik, euskal preso politikoen sistema honen instrumentu bat da. Sistemari presoak egotea komeni zaito, preso arruntak edo politikak berdin zaito. Bergizarteratzerik nahi al du? Ez. Lo hartuta egotea nahi du presoak, pastila hartu eta gelditu. Preso hori kalera ateratzen da eta berriro lapurtuko du, edo behar duena egingo du. Inoiz ez du bergizarteratuko eta are gutxiago ideia batzuegatik eta herri baten-gatik borrokan ari den pertsona bat.

E.I.: Zertarako?

S Soka motzean

«Ikusi dudan azkeneko filma '10.000' da, asko gustatu zait»

XABIER PERURENA

Harakina

N. GARZIA

Zer da zure lanetik gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Jendearekin erlazioatzea gustuko dut, larunbatetan lan egitea, berriz, ez hainbeste.

Abesti bat?

Rantxerak ikaragarri gustatzen zaizkit.

Pelikula bat?

Ikusi dudan azkeneko filma *10.000* da, asko gustatu zait. Zinema oso gustuko dut.

Parrandarako leku bat?

Leitza.

Non igaro dituzu azkeneko oporrak?

Ez dut inoiz oporrik izaten, ez didate baimenik ematen eta... kar-kar.

Telebistako programa bat?

Telenobelak asko gustatzen zaizkit.

Zein da gehien gustatzen zaizun hilabetea?

Abuztua, eguraldiarengatik eta festak izaten direlako.

Edaririk gustukoena?

Kalimotxo.

Afari erromantiko batetarako zer prestatuko zenuke?

Ensalada epela, urdiazapikoa, solomillo edo azpizun zati batzuk eta marrubiak esne-gainarekin.



N. GARZIA

Leitzako 8 musikariek hartuko dute parte III. Satur Eletaren finalean

Musika » Lekunberri

Larraun, Basaburua, Ultzama eta Araitz Beteluko ikasleek ere parte hartuko dute finalean.

rakoak, 3. Hirukote eta laukoteei dagokienez, bakoitzetik bakarra izanen da. Saxoa, akordeoia, pianoa, trikitixa, perkusioa, gitarra, txistua, zeharkako xirula izanen dira ikasleek joko dituzten instrumentuak.

N. GARZIA

Aralar Musika Eskolako Leitzako 8 ikasleek hartuko dute parte Satur Eleta III. Musika Lehiaketaren finalean, datorren larunbatean, Lekunberriko 31. Aretan.

Orotara 24 taldek hartuko dute parte finalean, hauetatik hiru bakarlarri 8 eta 9 urte bitartekoak dira, beste zortzi 10 eta 12 urte bitartekoak, beste lau bakarlarri 13 eta 15 urte bitartekoak eta 16 urtetik gorakoak bi izanen dira. Beraz, 17 bakarlarri izanen dira finalean, bakoitz bere instrumentuarekin.

Bestalde, 5 izanen dira parte hartuko duten bikoteak, 8 eta 11 urte bitartekoak 2 eta 12 urtetik go-

Leitzatik 8 ikasle

Beñat Altzelai (saxoa), Amaia Ezkurdia (akordeoia), Uxue Mutuberria (trikitixa), Oinatz Mariezkurrena (perkusiua), Manex Moreno (pianoa), Mikel Sagastibelza (gitarra), Lorea Zabaleta (txistua) eta Zuriñe Goikoetxea (pianoa) dira Leitzatik finalera joanen diren ikasleak.

Denek bakarlarriek kategorian hartuko dute parte, Altzelai eta Ezkurdia 8 eta 9 urte bitarteko kategorian, Mutuberria, Mariezkurrena, Morenok eta Sagastibelzak 10-12 bitartekoan, eta Zabaletak eta Goikoetxeak 13-15 urte bitartekoan.

Txapelketa berri batean parte hartuko dute herriko pilotariek bihartik aurrera

Pilota » Nafar Jokoak izena duen arren, txapelketa ezberdina da, eta ikasturte amaiera arteko hutsunea betetzea du helburu.

NAIARA GARZIA

Irailan abian jarri zen eta duela pare bat aste amaitu zen Nafar Jokoak izeneko txapelketa amaitu eta gero, asteburu honetatik aurrera martxan da Nafarroa mailan ikasturte amaiera arte jokatu den beste txapelketa bat. Honi ere Nafar Jokoak izena jarri dioten arren, beste txapelketa bat da. Asteburu honetan jokatu dira lehenengo norgehiagokak, eta Leitzan, esaterako, 8 partida jokatu dituzte bihar goizean zehar.

Txapelketa berri bat

Duela zenbait aste, Nafar Jokoak amaitzek zeudela, Iruñean bilera bat egin zuten federaziokoekin, Nafar Jokoak amaitu eta gero, kurto amaiera arte hutsune handi bat zegoela ikusiz, horri irtenbide bat emateko asmoz. Bertan izan zen Aurrera Pilota Eskolako Pakito Sagastibelza. «Beste txapelketa bat martxan jartzea erabaki genuen, pilotariek kurtsua amaitu arte pilotan jokatzeko jarrai dezaten. Herri Arteko Txapelketa ere tartean da, baina hemen jokatzeko dutenek ez



Nafar Jokoetan, Amazabalen jokatuako partidetakoa bat. N. GARZIA

dute txapelketa berri honetan parte hartuko. Azken batean, Herri Artekoak lehentasuna dauka, baina txapelketa berri honi esker pilotari guztiak jokatzeko jarraitzeko aukera izanen dute». Txapelketa berri bat den arren, izen bera jarri diote, hau da, Nafar Jokoak, eta kurtsua amaitu bitarte asteburu Aurrerako pilotariek makina bat partida jokatu dituzte.

Nafar Jokoak, asteburuan

Bihartik aurrera jarriko da martxan, beraz, txapelketa hau. Leitzako Amazabal pilotalekuan 09:00etatik aurrera 8 partida jokatu dituzte, Nafarroako beste zenbait pilota eskolako pilotarien aurka.

Lehenengo 2 partidak Aurrerako pilotarien artean jokatu dituzte. Honela, Mikel Sagastibelza

no eta Joxerra Aldaregiak Zugaralde C taldearen aurka (haur-kategorian, lehenengo mailan), eta Martin Etxeberriak eta Xabier Jaunarenka, Club Natacionen aurka (kadeteen bigarren mailan). Mikel Erasok eta Oinatz Mariezkurrenaren atsedean hartuko dute asteburu honetan.

Beste zenbait txapelketa

Nafar Jokoez gain, Aurrerako pilotariak beste 2 txapelketetan hartuko dute parte asteburu honetan.

Iera Agirek GRAVN Txapelketan parte hartuko du, Urtsunekoan batera, bihar arratsaldean, 17:30ean, Iruñeako Iturrarako Lopez pilotalekuan.

Bestalde, Zaramagako Txapelketan ere Aurrerako pilotariak buru-belarri dabilta, eta etzi, Mikel Sagastibelza Lasartek eta Anduezak Urruti eta Gaztañagaren aurka jokatu dute, eta Joxerra Aldaregiak eta Mikel Hernandezak Otamendi eta Ansoren aurka.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizalzeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Inde Kitchen eta Homo Demens musika taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

Ikastaroak

■ **Tolosa.** Oargi mendi elkarteak segurtasuna glaziarretan ikastaroa antolatatu du asteburu honetarako Gavarnien. Izen-ematea, elkartearen edo oargi@telefonica.net helbidean.

Ikuskizunak

■ **Tolosa.** Soledad Ruz flamenko dantzariaren *Magia flamenca* emanaldia Leidor aretoan 20:30ean.
■ **Villabona.** Sahatsa Dantza Taldeak (Azkoitia-Azpeitia) *Nafarroa, lilura eta bizipoza* dantza ikuskizuna eskainiko du Olaederra kiroldegian 22:30ean. Sarrera: 7 euro (aurretik 5).

Deialdiak

■ **Ibarra** Hilaren 12an egingo den II. Ziklo indoor maratoirako izen-ematea, Belabieta kiroldegian edo telefonoz (943 671544)goizez. 10 euro ordaindu behar da.
■ **Tolosa.** Amaia Agirre billabona-



Non dago aldea?

TXEMA ZABALA MAIZ (TOLOSA) • Txema Zabala tolosarrak konparaketa berezia egin digu, Aste Santuan ikusi dituen bi *dorreen* artean. «Aste Santuan Parisen egon gara. Han Eiffel dorrea ikusi genuen. Pazko asteen Gorbeian egon naiz. Bertan, bere

gurutze famatua ikusi nuen. Biak antzekoak, biak desberdinak. Parisiko dorrea askoz altuagoa da, 300m.koa, eta Gorbeiakoa 17m.koa bakarrik. Baina Pariseko punta ez da iristen 400 metrora, eta Gorbeiakoa, ordez, 1.500 metrora».

tarra, Larraulgo Jexux Mari Irazu eta Diego Riaño leitzarrarekin bertso afaria antolatatu du Hitzak bere 5. urteurrena ospatzeko, bihar, 21:00etan Oargi elkartearen.

■ **Villabona.** Villabonako Udaleko Euskara Zerbitzuak Amodiozko Gutunen Lehiaketa martxan jarri du. Lanak udaletxean entregatu behar dira.

Erakusketa

■ **Alegia.** Alegiko jubilatuen tabernan Lucia Arenas tolosarraren margolanak izango dira ikusgai hilabete osoan zehar. Astearretik igandera bitarte, tabernaren ordutegiaren baitan.

■ **Tolosa.** Angel Arbe artistaren *Biogeometriak* lanen erakusketa Aranburu Jauregian.

■ **Tolosa.** *Marierpuru* ipuinari buruzko erakusketa Haur Liburutegian, ikastetxeetan egindako marrazkiak.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Zuriñe Iglesias (Ibarra). Gaur 9 urte. Zure anai Eloi eta lehengusu Ireber eta Saigotsen partetik.



Urte askoan!

Izaskun Sarasola (Asteasu). Gaur 7 urte. Muxu bat etxekoan partetik.



Ongi etorri eta zorionak! Martxoak 22an udaberria sartu eta berehala iritsi zen etxeko txikiena. Ibai Arretxe Rubia. Bere amatxo Norak berriz, urteak bete zituen martxoaren 28an. Muxu bana etxekoan partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

txokoa
h

4 sarrera pare
zozketan

Irabazleak:

- Alazne Lasa (Irura)
- Arkaitz Lizartza (Ibarra)
- Juan Antonio Iraeta (Ikaztegieta)
- Mari Cruz Gurrutxaga (Tolosa)

21:00etan • Tolosako Oargi Elkartearen

hitzak 5 urte
Apirilak 5 • Larunbata



Bertso afaria

Amaia Agirre, Jexux Mari Irazu eta Diego Riaño bertsoariekin.

